

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1824

564/2023 EBAZPENA, martxoaren 28koa, Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez deialdia egiten baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuan Ekonomiako eta Finantzako Zuzendaritzako Administrazioiko eta Kudeaketako zerbitzuburuaren (Kontabilitate Arloa) lanpostua izendapen askez betetzeko.

Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko Ekonomiako eta Finantzako Zuzendaritzako Administrazioiko eta Kudeaketako zerbitzuburuaren (Kontabilitate Arloa) lanpostua hutsik geratzea aurreikusi da. Hori dela-eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du Zuzendaritza Gerentzia honek, honako oinarrien arabera,

OINARRIAK

1.– Parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

a) Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetako langile finkoa izatea (estatutupekoa, funtzionarioa edo lan-kontratuduna) eta lanpostua jabetzan edukitzea A1/A2 lanbide-taldean.

b) A1/A2 lanbide-taldeko titulazioa izatea (Ekonomiako gradua, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua edo antzekoa).

c) Lan-esperientzia: gutxienez, 4 urteko esperientzia A1/A2 lanbide-taldean Kontabilitate arloari lotutako eginkizunetan.

d) Euskararen hizkuntza-eskakizuna: 3. HE.

e) Uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuko gainerako betekizunak.

2.– Aintzat hartuko diren merezimenduak.

– Esperientzia kontabilitate-zerbitzuaren koordinazioan eta kudeaketan.

– Aurrekontuak egiteko tresnetan eta kudeaketan esperientzia eta/edo prestakuntza. Aurrekontuak egitea eta horien gauzatzearen jarraipena.

– Diruzaintzaren (CashPooling) kudeaketan esperientzia eta/edo prestakuntza. Diruzaintzako aldizkako aurreikuspenak egitea. Hornitzaileei ordainketak, nomina, atxikipen judizialak, transferentziak, diru-sarreraren kudeaketa eta abar kontrolatzea eta bideratzea.

– Finantza-kontabilitatean esperientzia eta/edo prestakuntza. Egoera-balantzea eta Emaiza-kontua aztertzea eta jarraipena egitea. Ekonomia-memoriak egitea. Kontabilitate-auditoretzetarako informazioa bidaltzea.

– Fakturazio elektronikoan esperientzia eta/edo prestakuntza.

– Joan-etorrien gastuen kudeaketan esperientzia eta/edo prestakuntza.

– Programa informatikoen (SAP, Analyzer, QlikView, ofimatika, eta abar) kudeaketan prestakuntza eta esperientzia.

Lanpostu hau betetzeko interesgarria izan daitekeen eta balioa erants diezaiokeen edozein merezimendu aurkeztu ahalko da.

3.– Euskararen ezagutza.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan Euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak eta berau garatzen duten arauak xedatutakoaren arabera egingo da balorazioa.

4.– Eskaerak egiteko epea eta aurkezteko modua.

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko Langileen Zuzendaritzan aurkeztu beharko dituzte eskabideak (Labeaga auzoa, 46A, 48960-Galdakao). Horretarako, 15 egun balioduneko epea izango dute, ebazpen hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Aurkeztu ahal izango dira, halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako eran.

Interesdunek Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko Langileen Zuzendaritzara bidali behar dute eskabidea, beren datu pertsonal guztiak eta curriculum vitae dokumentatuarekin batera.

Dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

– NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren kopia konpultsatua.

– Funtzionario edo estatutupeko langile izendapenaren kopia konpultsatua edo, hala badagokio, lan-kontratu finkodun langilea dela egiaztatzen duen agiriarena.

– Baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioaren kopia konpultsatua.

– Kontuan hartu beharreko merezimendu guztien kopia konpultsatua.

CVaren aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala baliozkotuta dauden alderdiak ez dira ziurtatu behar izango aurreko paragrafoan ageri den moduan; hala ere, izangaia horren berri eman beharko du eskaeran.

5.– Balorazio Batzordea.

Batzorde bat eratuko da aurkezten diren eskabideak baloratzeko, eta izangaiei horren berri emango zaie.

Batzordeak, eskabideak baloratu ondoren, eginbide osagarriak egitea erabaki ahal izango du, eta izangaiei jakinaraziko zaizkie.

2023ko apirilaren 17a, astelehena

Izangaien balorazioa egindakoa, eta berau kontuan hartuta, dagokion izendapena egiteko proposamena aurkeztuko da. Lanpostua hutsik uztea proposa dezake Balorazio Batzordeak, betiere aurrez txosten arrazoitua eginez, baldin eta izangaiek betetzen ez badituzte bete beharreko baldintzak.

Akta egingo da Batzordea biltzen den bakoitzean. Bertan, aurkeztutako izangaiak zerrendatuko dira, egindako eginbide osagarriak (halakorik balego), eta lanpostua euretako bati esleitzeko edo deialdia bete gabe uzteko kontuan hartutako arrazoiak emango dira.

6.– Hautaketa prozedura.

Ezin izango dira baloratu, inolaz ere, deialdia EHAAan argitaratzen den egunean eskuratu gabe dauden merezimenduak, ez eta eskaerak aurkezteko epea amaitu aurretik behar bezala alegatu eta egiaztatu ez direnak ere.

7.– Prozedura amaitzeko Ebazpena.

Honen bidez hasitako prozedurari amaiera emango zaio (lanpostua esleitzea edo betetzeke uztea), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearen ebazpenaren bidez, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta baita Osakidetzaren intranetean zein web-orri korporatiboan ere argitaratuko da. Ebazpen horrek ondorioak izango ditu EHAAan argitaratzen den egunetik aurrera, bertan besterik xedatu ezean.

8.– Ebazpen honen aurkako errekurtsioak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpena EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Galdakao, 2023ko martxoaren 28a.

Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari-gerentea,
JON GUAJARDO REMACHA.